

ESPAZIOAREN AZTERKETA

Dokumentu honetan bi kategoriatan banantzen dira Fadurako kiroldegirako eremuak: lehenengoan kirol-instalazio guztiak barne hartzen dira, hau da, kirolarekin edo kulturarekin zerikusia duten erabilera mugatu bat duten elementu guztiak. Bigarrenengan, instalazioak lotzen dituzten espazio libreak edo igarotzekoak barne hartzen dira, orain “hondartzat” hartzen diren eta Fadurako parke-kontzeptu berri baterako oinarritzat har litezkeen eremuak barne hartuz.

Kiroldegiko instalazioak:

- 1-Mantentze-lanetako etxola
- 2-Helmugako argazkirako etxola
- 3-Aldagelak eta harmailak
- 4-Belodromoa eta errugbi-zelaia
- 5-Arletismo-pista
- 6-Tenis-pista estaliak


- 7-Kanpoko tenis-pistak
- 8-Ping-pongerako eremua
- 9-Kanpoko padel-pistak
- 10-Saskibalo-pista eta areto-futboleko pista
- 11-Hockey-pista
- 12-Erabilera anitzeko pista
- 13-Frontoiaren eraikina
- 14-Getxo taldearen futbol-zelaia
- 15-Garagardotegiaren eremua
- 16-Teknika Hobekuntzarako Zentroa
- 17-Fadurako eraikin nagusia
- 18-Ostalaritzan Prestatzeko Zentroa eta kafetegia
- 19-Igerileku mistoa
- 20-Kanpoko igerilekua
- 21-Eremu teknikoak
- 22-Bolue 1 eta 2 futbol-zelaiak
- 23-Bolue 3 futbol-zelaia





1

MANTENTZE LANETAKO ETXOLA



Azalera: 440 m²

Kudeatzailea: Getxo Kirolak.

Parte hartutako beste eragile batzuk: Mantentze-laneko langileak; Berango Atletismo Kluba; Getxo Errugbia, Punta Galea Txirrindulari Elkarte.

Ezaugarriak: Barruti itxia da eta Getxo Kirolakeko langileak bakarrik sar daitezke. Mantentze-lanetarako ekipamenduak gordetzeko erabiltzen da nagusiki. Horrez gain, zati bat biltegiratze-eremu gisa erabiltzen da Berango atletismo-kluberako, eta beste bat, Errugbi taldearen garbitoki gisa. U forman antolatuta dagoen eraikin-multzo bat da, eta sarbide hesitu bakarra du patiora. Autoz ere sar daiteke. Iparraldeko gainerako eraikinekin ez dago oso integratuta, eta eremu handia hartzen du. Interesgarria izango litzateke hori berriz pentsatzea eta parkeko eremuak beste modu batera antolatzea.





2

HELMUGAKO ARGAZKIRAKO ETXOLA



Azalera: 40 m²

Kudeatzailea: Getxo Kirolak.

Parte hartutako beste eragile batzuk: Atmo Getxo


Ezaugarriak: Helmugako argazkirako etxola Fadurako antzinako elementu bat da. Gaur egun ez da erabiltzen jatorrizko eginkizunerako, baina instalazioan ikus daitekeen elementu gisa jarraitzen du.





3

HARMAILAK ETA ALDAGELAK



Azalera: 870 m²

Kudeatzailea: Getxo Kirolak + Kontratuak (garbiketa).


Parte hartutako beste eragile batzuk: Getxo Atletismo Kluba, Berango Atletismo Kluba, Getxo Errugbia, Getxo Futbola, Getxo Hockey.

Ezaugarriak: Elementu hau kiroldegiko iparraldeko elementu berezia da, izan ere, funtsezkoa da belodromoaren/errugbi zelaiaren eta atletismo pistaren artean. Harmaila gisa balio du bi eremue-tarako eta baita aldagela gisa ere atletismo-eremu osorako eta errugbi-zelairako.

Balio arkitektoniko handia du, estalkiaren diseinuarengatik batik bat, baina zenbait irisgarritasun eta kontserbazio arazo ditu. Gaur egun iragazgaizpena hobetzen ari da, baina instalazio guztia narriatuta dago eta kexak daude bere mantentze-egoerarengatik.


Harmailen irisgarritasuna ere hobetu behar da, eskaileren bidez bakarrik igo daitekeelako.





4

BELODROMOA ETA ERRUGBI ZELAIA



Azalera: 14.000 m²


Kudeatzailea: Getxo Kirolak + Kontratuak (belar naturaleko zelaia).

Parte hartutako beste eragile batzuk: Getxo Errugbia, Punta Galea Txirrindulari Elkartea - Sociedad Ciclista, Sociedad Ciclismo Berango, Getxo Triatloi Taldea, Trirunners, Tkrono.

Ezaugarriak: Errugbi taldearen zelaia belar naturala duen Fadura hiru zelaietako bat da. Zelaia-
ren eta inguruaren lurzoruaren kalitatea ikertzen ari dira, atleten segurtasuna bermatzeko neurri
osagarriak hartu behar diren ala ez erabakitzeko, lurzoria kutsatuta dagoen zantzuak daudelako.

Instalazio honetarako interesgarriak izan daitezkeen aldaketen artean, belodromoa hobetzekoak
ere barne hartu behar dira, Amerikarra modalitateko txapelketak egiteko, lurzoria hobetuz eta
abar. Belodromora eta errugbiko zelaira sartzeko kontrol-sistema berriro pentsatu beharko da,
abonatuen eta gainerakoen arteko gatazkak saihesteko, ateak zabalik daudenez instalazio hauek
ere erabiltzen dituztelako.





5

ATLETISMO PISTA



Azalera: 16.500 m²


Kudeatzailea: Getxo Kirolak.

Parte hartutako beste eragile batzuk: Club Atletismo Getxo, Club Atletismo Berango, Getxo Triatloi Taldea, Trirunners, Tkrono.

Ezaugarriak: Atletismo pista duela urte gutxi batzuk berritu zuten. Horrela, kanpoko eraztuneko eta beste diziplina batzuetarako beharrezkoak diren eremuen zoladura hobetu zuten. Gaur egun, belar artifizialeko zelaia ez da barruan erabiltzen, errugbi-zelaia eta aldameneko eremua ikertzen ari direlako, kirola egiteko erabil daitekeen ala ez erabakitzeko, lurzorua kutsatuta dagoen susmoa dutelako.

Ez da egon instalazioaren inguruko kexarik, bai ordea atletismo-materialaren ingurukoak, esaterako, koltxonetak falta direlako. Eremu horietara sartzeko kontrol-sistema berriro aztertu beharko litzateke.





6

TENIS PISTA ESTALIAK



Azalera: 5.200 m²

Kudeatzailea: Getxo Kirolak.

Parte hartutako beste eragile batzuk: Club Deportivo de Tennis Playas de Getxo, Club Tennis Fadura.

Ezaugarriak: Fadurak 6 tenis-pista estali ditu, zoladura sintetikoa dutenak. Denak eraikin berean daude: 120 m inguru luze den nabe bat, argi naturala eta artifiziala duena. Oro har, pistak kon-terbazio-egoera txarrean daude. Hainbat kexa daude instalazio honetan, gehienak kondentsazioa dagoelako, itoginak, eta mantentze faltarengatik. Hori dela eta, batzuetan pistak ezin dira erabili eta arriskutsuak dira.





7

KANPOKO TENIS PISTAK



Azalera: 6.600 m²

Kudeatzailea: Getxo Kirolak.

Parte hartutako beste eragile batzuk: Club Deportivo de Tennis Playas de Getxo, Club Tennis Fadura.

Ezaugarriak: Fadurak kanpoko 8 tenis-pista ditu, zoladura artifizialekoak eta guztiz hesituta daudenak. Instalazioen mantentze-egoera ez da oso egokia. Zenbait kexa daude: zoladuraren egoera, argi falta, hesien eta sarbideen kontrolaren egoera. Pisten alboan dauden eremuetan kirol-kluben zenbait etxola daude. Horien artean Club Tennis Playa klubarena nabarmentzen da, hobeto erabil litekeen eremu batean dagoelako eta bere ingurua utzita dagoelako. Tenis-pista estali gehiago izateko eskaerak egin dira, padel-pisten eremua ere kontuan hartzen duen plan zabalago baten barruan.





8

PING-PONGERAKO EREMUA



Azalera: 1.200 m²

Kudeatzailea: Getxo Kirolak.

Parte hartutako beste eragile batzuk: Club Tennis Fadura.

Ezaugarriak: Ping-pongerako eremua lurrezko triangelu batean dago, tenis-pista estalien eta kanpoko pisten artean. Gaur egun ez dira mahaiak erabiltzen kontserbazio-egoera txarrarengatik. Eremuan tenis-kluben etxola bat (edukiontzi baten antzekoa) eta egoera txarrean dauden komunak dituen zurezko etxola bat daude. Oro har, eremu hau berriro pentsatu eta diseinatu behar da, parke-proiektu berrian sartzeko. Une honetan, gutxiegi erabiltzen den eremu bat da.





9

KANPOKO PADEL PISTAK




Azalera: 1.000 m²

Kudeatzailea: Getxo Kirolak.

Parte hartutako beste eragile batzuk: Pádel Aixerrota Club Deportivo Getxo, Club Deportivo Pádel Gobela.


Ezaugarriak: Kanpoko padel-pistetan berrikuntza-lanak egin dira Gobela ibaiaren hobekuntza hidraulikoko lanetan. Jatorrizko 7 pistetatik 4k bakarrik jarraitzen dute. Ez da kopuru nahikoa kiroldegiko eremu hori erabiltzen duten pertsonen arabera. Zenbait kexa aurkeztu dituzte pisten eta iturriaren egoera txarrarengatik, fokuak, argia eta eremuan komun bat falta direlako. Pista hauek ez dute sarbide-kontrol eraginkorrik.





10

SASKIBALOI PISTAK ETA ARETO FUTBOLEKO PISTA



Azalera: 2.000 m²

Kudeatzailea: Getxo Kirolak + Kontratuak (belar artifizialeko zelaia).

Parte hartutako beste eragile batzuk: Klub batzuk noizean behin.

Ezaugarriak: Saskibaloiko eta areto futboleko pistak padel pisten eta kiroldegiko iparraldeko sarreraren artean daude. Saskibaloi-pistek hormigoizko zoladura dute, eta oro har, kontserbazio-egoera txarrean daude. Areto futboleko pistaren zoladura belar artifizialekoa da, eta erabiltzen duten pertsonen zelaia egoera txarra, zulo arriskutsuak eta bestelakoak salatu dituzte. Ez dago instalazioetara sartzeko inolako kontrolik. Gaur egun, Makaleta Etorbidetik sar daiteke zuzenean.


Instalazioen multzoa (padel, saskibaloia eta areto futbola) berriro pentsatu behar da, Fadurako behar berriei eta eremua erabiltzeko modu berriei erantzuteko. Esaterako, eremu estali baina ireki gehiago eskatzen dira. Padel-pista gehiago, instalazioen baldintza hobekiak eta abar eskatzen dira.





11

HOCKEY PISTA



Azalera: 5.700 m²

Kudeatzailea: Getxo Kirolak.

Parte hartutako beste eragile batzuk: Getxo Hockey Taldea, Getxo Futbola, Getxo Errugbia.


Ezaugarriak: Hockey pista entrenamenduetarako eta belar artifizialeko hockey-partidetarako, errugbiko eta umeentzako futbol entrenamenduetarako erabiltzen da. Ate mugikorak erabiltzen dira. Eremu guztiz hesituta dago, eta ate batetik bakarrik sar daiteke. Zelaiaren eta perimetro-hesiaren egoera txarraren inguruko kexak egin dira.





12

ERABILERA ANITZEKO PISTA




Azalera: 6.400 m²

Kudeatzailea: Getxo Kirolak + Kontratuak (belar artifizialeko zelaia).

Parte hartutako beste eragile batzuk: Getxo Béisbol Etsaiak Club, Getxo Futbola, Getxo Errugbia.


Ezaugarriak: Erabilera anitzeko pista guztiz irekita dago eta hockey-zelaiaren ondoan dago. Entrenamenduetarako eta beste jarduera batzuetarako erabiltzen den belar artifizialeko pista bat da. Ez dago instalazio honekin zerikusia duen kexarik edo arazorik.





13

FRONTOIEN ERAIKINA



Azalera: 7.000 m²

Kudeatzailea: Getxo Kirolak + Kontratuak (garbiketa).

Parte hartutako beste eragile batzuk: Eskalada eta patinaje Trepatina Elkarte, Geroa Gimnasia Elkarte, Getxo Errugbia, Getxoko Euskal Pilota Taldea, Padel Aixerrota Txirrindulari Elkarte, Club Deportivo Boxeo Izarrak, Club Deportivo Cuerdeando, Club Gimnástico Femenino de Getxo, Getxo Irristaketa, Club Patinaje Artístico Getxo Show, Club Deportivo La Kantera Skate, Club Tennis Fadura, Club Playas de Getxo, Pádel Aixerrota, Padel Gobela.

Ezaugarriak: Frontoi ena ikina erabilera eredu berrietara eta jarduera eta kirol berrien arrakastara gehien egokitu behar den instalazioetako bat da. Era berean, aldaketetara egokitzeko eta bere eremu zabalak ahalik eta gehien aprobetxatzeko ahalmen handiena duena da. Zentzu honetan garrantzitsua da erabilera berrien eskaerak kontuan hartzea, esaterako, boulder egiteko eremu bat, hondartzako boleibola egiteko kantxa estali bat eta padel-pista gehiago.


Kexak eta eskaerak nagusiki erabilera-arazoak eta jardueren arteko bateraezintasuna dira: eskaeraren inguruko padel-pista ireki gutxi, zarata-arazoak yoga aretoetan, boxeo eta errugbi-gimnasioaren soinu-isolamendu faltarengatik, gutxi prestatutako klubetarako aretoak, itogin batzuk eta abar.

Pertsona asko frontoi-pisten (sareak, zorua, itoginak, putzuak eta abar) eta aldagelen egoera txarrarengatik kexatzen dira. Frontoi ena egoera txarrak ez du eragozten pilota-jokoa bakarrik, baita patinajea eta eremu berean egiten diren beste jarduera batzuk egiteko ere.

Eraikinaren kanpoko partean, hockey-pistarantz, hobetu behar den rokodromo bat dago. Oro har, eraikinaren kanpo eremua, inguratzen duen ezpondarekin, ez dago ondo aprobetxatuta.

Gainerako Fadurarekin alderatuz, frontoi ena eraikinak funtsezko zeregin bat du, eta kontrola duen sarbide bakarra da iparralde osoan. Sakonean aztertu beharko da sarbide mota eta zentzu horretan duen rola aldatzen badira.

Azken urteetan zenbait zalantza sortu dira eraikinaren egonkortasunaren eta zimenduan egon daitezkeen asentuen inguruan. Bere egiturazko egoera ezagutzeko azterketak egiten ari dira, eta instalazio horiek etorkizunean izan ditzaketen aukerak ezartzeko. Oraingoz eraikina itxita dago publikoa egotea eskatzen duten ikuskizunetarako.



14

GETXO TALDEAREN FUTBOL ZELAIA



Azalera: 12.000 m² (7.000 m²-ko jolas-eremua eta 5.000 m²-ko aldagelak, harmailak eta biltegiak)

Kudeatzailea: Getxo Kirolak eta Getxo Kirol Kluba + Kontratuak (belar naturaleko zelaia).

Parte hartutako beste eragile batzuk: Getxo Kirol Kluba.

Ezaugarriak: Futbol-zelaia Getxo Kirol Klubak bakarrik erabiltzen duen instalazioa da. Azpiegitu-rez inguratuta dagoen belar naturaleko zelai bat da. Kasu gehienetan azpiegitura horiek kontserbazio-egoera txarrean daude: harmailetako batzuk, iparraldea, ekialdea eta hegoaldea, ezin dira erabili, utzita daudelako. Harmaila nagusiak, mendebaldean, normalean erabiltzen dira, baina ez daude publikoa egoteko egoera egokian. Taldeen nahiz arbitroetan aldagelek hobekuntza-lanak behar dituzte.


Oro har, futbol-zelai honen eremua berriro pentsatu behar da. Leku berean udal estadio bat eraikitzeko aukera aztertzen ari da, tribunak, aldagelak eta gaur egungo estandarretarako egokiak diren aretoak dituen.





15

GARAGARDOTEGIAREN EREMUA



Azalera: 2.500 m²

Kudeatzailea: Getxo Kirolak.

Parte hartutako beste eragile batzuk: Nagusiki Club Deportivo Getxo, Club Getxo de Actividades Subacuáticas, Club Litoral Sub, Getxo Errugbia, eta abar. Fadurarekin lotuta dauden ia klub guztiek garagardotegia erabiltzen dute.

Ezaugarriak: Garagardotegiaren eremua 2.500 m² inguruko eremu hesitua da. Bi sarbide ditu Makaleta Etorbidean, lursailaren aurreko eta atzeko lorategietatik, eta zenbait eraikin ditu, horien artean 2016an erre zen zurezko nabea.

Erabilera tradizional, jarraitu eta handia duen eremua da. Hori dela eta, berriro diseinatzeko prozesuak berariazko partaidetza-fase bat barne hartzen du. Garagardotegia futbol-zelaiarekin batik bat lotuta dago (zenbait eraikin partekatzen ditu) eta Fadurarako sarbideetako batekin, “Gurutze Gorriaren etxolaren” iparraldean kokatuta dagoena. Garagardotegiak Fadurako eremu publikoan duen garrantzia kontuan hartu behar da, bere kokapena eta erabilera direla eta, egoera estrategiko batean daudelako kirol-eremuaren etorkizunerako, etorkizuneko parke irekirako eta udalerrirako.





16

TEKNIKA HOBEKUNTZARAKO ZENTROA



Superficie: 12.600 m²

Kudeatzailea: Eusko Jaurlaritza, Kultura Sailaren Kirol Zuzendaritza.

Parte hartutako beste eragile batzuk: Getxo Kirolak (Kirol pabiloia), Club Voleibol Aixerrota, Getxo saski.


Ezaugarriak: Teknika Hobekuntzarako Zentroa Fadurako eremuan kokatuta dagoen instalazioa da. Ez dago irekita publikoarentzat oro har eta ez du Getxo Kirolakek kudeatzen. Guztiz hesituta eta gainerako instalazioetatik bereizita dagoen eremua da. Eraikina berdegune estu batez inguratuta dago, eta hesi baten eta eraikinaren artean dagoenez ez dago ondo aprobetxatuta. Horren zati bat ibairantz ireki liteke, ertzean zehar berdegune handiagoa lortuz.





17

FADURAKO ERAIKIN NAGUSIA



Azalera: 5.400 m² (solairuko)

Kudeatzailea: Getxo Kirolak.

Parte hartutako beste eragile batzuk: Getxo Kirolak, Geroa Gimnasia Elkarte, Getxoko Aixerrota Boleibol Kirol Taldea, Baloncesto Getxo Saskibaloia, Club Ajedrez Getxo, Patinaje Getxo Show.

Ezaugarriak: Eraikin nagusian hainbat jarduera daude, eta bere aniztasuna, izaera eta eskaera bereziak direla eta, irtenbide desberdinak behar dituzte. Jarduera askoren artean hauek nabarmen-tzen dira: muskulazio-gimnasioa, dantza-aretoa, arte martzialerako aretoa, zenbait igerileku, kiroldegia, solariuma, sauna, masaje aretoa, hidromasaje eremua, tratamendu estetikoerako eremua, “Txiki Park”, Getxo Kirolak administrazioa eta zuzendaritza.

Instalazio honek, errepikatzen diren eta Getxo Kirolakeko langileek aurkitutako arazo batzuk ditu: eremu publikoa, aparkaleku gutxi egotea bai autoerako bai bizikletetarako eta lotura gutxi hiria-ekin; barruko erabilera mailan, arazoak sarrerako tornuekin eta kexak igerilekuetarako sarbideetan zoru irristakorra dagoelako.

Azken urteetan instalazioaren egoerarekin zerikusia duten zenbait kexa aurkeztu dira. Hauek dira ohikoenak: itoginak kiroldegian, berogailu falta ikasketa aretoan eta liburutegian, zenbait aretotan haizagailuak matxuratuta daude, igerilekuan armairuak apurtuta daude eta kiroldegiko bereizteko edo segurtasun elementu batzuetan akatsak daude.

Horrez gain, dagoeneko Getxo Kirolakek 2017ko lehen erdialdean eskatu zuen “irisgarritasunari buruzko txostenean” adierazitako irisgarritasun-arazoak daude.

18

OSTALARITZAN PRESTATZEKO ZENTROA - FADURA KAFETEGIA
ETA TXIKIGUNEA

Azalera: 1.600 m²

Kudeatzailea: Getxo Kirolak.

Parte hartutako beste eragile batzuk: Peñascal Fundazioa.

Ezaugarriak: Kafetegiaren eraikina Fadurako kirol konplexuaren barruan dago, eraikin nagusiari atxikita. Makaleta Etorbidetik sar daiteke eraikinera, edo igerilekuetatik, baina ez dago zuzeneko loturarik eraikin nagusiarekin.


Eraikin honetan bi jarduera nagusiki egiten dira: beheko solairuaren eta lehen solairuaren zati bat ostalaritza-zerbitzuetarako eta kafetegirako dira, abonatuentzat eta publikoarentzat oro har. Gainerako beheko solairua ludoteka eta Txikigune gisa erabili da, baina gaur egun, ez du erabilera zehatzik. Beste jarduera eta erabilera batzuk sartzeko aukera dago.





19

IGERILEKU MISTOA



Azalera: 2.000 m²

Kudeatzailea: Getxo Kirolak.

Parte hartutako beste eragile batzuk: Getxo Igeriketa Waterpolo, Getxo Triatloi Taldea, Trirunners, Tkrono, Club de aguas abiertas

Ezaugarriak: Erabilera mistoko igerilekua 50 m-koa da, eta oinplano angeluzuzeneko eraikin baten barruan dago. Itxitura bertikalak eta sabaia guztiz ireki daitezke, egoera klimatikoaren arabera. Eraikin nagusiari atxikita dago eta sarbideak, aldagelak eta igerilekua ondo ibiltzeko beharrezkoak diren gainerako zerbitzuak partekatzen dituzte. Instalazioa egoera onean dago, eraikin nagusiaren arazo batzuk ere baditu, hala nola leihatilen egoera txarra edo zoru irristakorra zenbait lekutan.





20

KANPOKO IGERILEKUA



Azalera: 6.000 m² guztira, 600 m²-ko igerilekuak

Kudeatzailea: Getxo Kirolak.

Parte hartutako beste eragile batzuk: Getxo Triatloi, Trirunners, Tkrono, Club de aguas abiertas.

Ezaugarriak: Igerileku irekiak inguratzen dituen parke-azalerak murrizketa handia izan du azken 15 urteetan. 2002. urtean Bolue 3 futbol-zelaia eraiki zen eta 2017an Gobela ibaiaren hobekuntza hidraulikoko lanak egin ziren. Hori dela eta, parkearen azalera 9.000 m²-koa izatetik 3.800 m²-koa bakarrik izatera pasa da.

Gaur egun, berdegunea ez dago zainduta, ez du itzalik eta paisaia-diseinu bat behar du, haren ahalmenari etekinik handiena ateratzeko. Umeek jolasteko eremu bat du. Egoera txarrean dago, oso gutxi erabiltzen du eta udan ez du erabileraren esperientzia guztiz onik ematen.

Kudeaketa-mailan, kanpoko igerilekuen edukiera kontrolatzeko arazoa konpondu behar da, sarbi-dea kontrolatzeko gunea eraikin nagusikoa bera da.





21

EREMU TEKNIKOAK (GALDARAK, ARAZTEGIAK, ETA ABAR).



Azalera: 450 m² Galdara eremua + 100 m² igerileku irekiko araztegia + 1.100 m² Ontzi mistoko arazketa gelarako eremua.

Kudeatzailea: Getxo Kirolak.

Parte hartutako beste eragile batzuk:

Ezaugarriak: Eraikin nagusiak eta igerilekuenak hiru eremu tekniko ditu. Eraikin nagusiko galdara-lokala eta sorgailuaren lokalek eraikinaren aldameneko eremu hesitu batean daude, eta aparkaleku nagusitik sartzen da. Udako igerilekuen eremuan kanpoko igerilekuaren araztegia dago, lorategiaren erdian dagoenez zenbait arazo eragiten dituen toki batean. Azkenik, eremu handiengan, ontzi mistoko arazketa gela, galdara gela, aireko gela eta igerileku-klubaren etxola bat dago. Kafetegiaren eta Bolue 3 futbol-zelaiaren artean dago. Azken eremu honetara eraikin nagusiko aparkalekutik sartzen da, baina ontzi mistorako sarbide bat ere badu. Eremu tekniko horiek eremu irekiekin duten erlazioa (pasaia, bisuala, irisgarritasuna...) berriro aztertu behar da.










22

BOLUE 1 ETA 2 FUTBOL ZELAIK ETA ALDAGELAK



Azalera: 17.500 m²

Kudeatzailea: Getxo Kirolak + Kontratuak (belar artifizialeko zelaia).

Parte hartutako beste eragile batzuk: Iturgitxi Futbol Club, Bizkerre, Arrautzaldeon Futbol Taldea, Sociedad Deportiva Neguri, Getxoko Futbol Kluba.

Ezaugarriak: Bolue 1 eta 2 futbol-zelaiek ia bi hektarea hartzen dituzte Fadurako hegoaldeko muturrean. Belar artifizialeko bi zelai dira, hormigoizko zola batez inguratuta. Sarbide nagusia Salsidualde Estartatik eta Fadurarako barneko bidetik egiten da, Gobela ibaian zehar. Zelaiek ikusleentzako eremuak dituzte hegaletan eta atzealdeetan (1.510 pertsona iparraldeko zelairako, Bolue1, eta 788, hegoaldeko zelairako, Bolue 2). Instalazioak bi aldagela-eraikin ditu: bata, sarrera nagusiaren ondoan; bestea, berriki eraiki dutena, Bolue 2 zelaiaren ekialdeko hondoan dago.









23

BOLUE 3 FUTBOL ZELAIA, ALDAGELAK ETA HARMAILAK



Azalera: 9.000 m²

Kudeatzailea: Getxo Kirolak + Kontratuak (belar artifizialeko zelaia).

Parte hartutako beste eragile batzuk: Iturgitxi Futbol Club, Biskerre, Arrautzaldeon Futbol Taldea, Sociedad Deportiva Neguri, Getxoko Futbol Kluba, Arenas, Romo, Adrebol.

Ezaugarriak: Bolue 3 futbol-zelaia instalazio berria da nolabait (2002), lehen kanpoko igerilekuen berdegunearen barruan zegoen eremuaren zati bat hartzen duena. Belar artifizialeko zelai bat da, eta Makaleta Etorbidetik zuzenean sartzen da. Aldagelak eta harmailak ditu ikusleentzat.

Ez dago eremu hau erabiltzen duten pertsonen kezarik edo eskaerarik, 2016ko gertakari bat izan ezik, zelaiaren eta harmailen arteko korridorea urez bete zena.

Instalazio honen inguruko paisaia berriz aztertu beharko litzateke, zenbait eremu marjinal sortu direlako, hala nola igerilekuen triangelua ekialdean, eta triangelu-formako beste eremu bat hegoaldean, askorik ez dena erabiltzen.









ÁREAS LIBRES DE POSIBLE INTERVENCIÓN DIRECTA

Kirol-instalazioek hartu ez duten espazioa 11 eremutan banatu da. Bakoitzak bere izaera du eta besteen desberdina da, espazioa, erabilera eta kudeaketa kontuan hartuz. Nahiz eta banaketa hori izan, funtsezkoa da multzoa unitate gisa kontuan hartzen jarraitzea, izan ere, oso garrantzitsua da espazio libre horien jarraitutasuna (fisikoa, bisuala, paisaia) mantentzea.

Zuzeneko esku-hartzea izan dezaketen eremu libreak:

- 01-Iparraldeko ertza
- 02-Erdiko eremua
- 03-Tenis ertza
- 04-Belodromoaren ekialdeko ertza
- 05-Gobelako goi-ekialdeko ertza
- 06-Padel eremua eta garagardotegirako sarbidea
- 07-Gobelaren erdiko ertzak
- 08-Aparkaleku nagusia
- 09-Makaleta Etorbideko aparkalekua
- 10-Gobelako beheko marjinak
- 11-Hegoaldeko ertza



Azalera osoa

Instalazioek hartutako eremuak



Pistak eta igerilekuak



Eraikinak

Eremu libreak



Eremu libreak
8.2 Ha



Jabari publiko
hidraulikoa 1,21 Ha





Autoetarako eta
aparkalekuetarako
utzitako eremua: 1,0 Ha







←
Fadurako zuzeneko
esku-hartzea izan
dezaketen eremu
libreen kokapena..

→
Hesi erabilgaitzak
→ →
Oinezkoen ibilbideak





→
Gutxiegi erabilitako eta
aktibatzea zailak diren
eremuak
→ →
Ibaiaren eremua eta
polizia-eremua





← ←
Eremu erabilgarriak
←
Aparkaleku eremuak
eta autoak maniobrat-
zeko eremuak



← ←
Eraikinek hartutako
eremuak
←
Langileak bakarrik
sartzeko diren eremu
teknikoak

1

IPARRALDEKO ERTZA



Azalera: 6.490 m²


Kudeatzailea: Getxo Kirolak.

Ezaugarriak: Kiroldegiko iparraldeko ertza gutxi gorabehera 230 m luze eta 20 zabal den eremua da. Kanpoko hesitik instalazioaren barnealdera malda txiki bat dago. Iparraldeko sarrera mantentze-lanen etxolarekin eta atletismo-pistekin lotzen dituen bide nagusia alde batera utzita, ez dago eremu gurutzatzen duen bestelako biderik.

Zenbait eremu errugbi-entrenamenduetarako erabiltzen dira, eta aireko argazkian ildo nabaritzen dira. Horrek erakusten du pistetatik kanpo zenbait entrenamendu-ibilbide aurreikusi behar direla.


Kiroldegiko eremu hau garrantzitsua da auzotik iparralderantz igarotzeko eta leku horretatik lursailletara ere sartzen delako.





2

ERDIKO EREMUA



Azalera: 9.764 m²

Kudeatzailea: Getxo Kirolak.

Ezaugarriak: Espazio hau kiroldegiaren iparraldeko erdiko eremua da. Harmailen eremua barne hartzen du eta hegoalderantz hedatzen da, atletismo-eremuko erdiko “plaza” osatuz. Ibairaino heltzen da. Zenbait elementu ditu, hala nola iturri bat edo umeen jolas-eremua. Eremu hau hainbat instalaziorekin lotuta dago: iparraldean, errugbi-zelaia eta atletismo-pista bereizten ditu, atletismo-eremuaren eta hockey pistaren erdian, eta ibairantz zubira doa, Gobela ibaia zeharkatzeko.

Funtsezkoa da eremu hori suspertzea, berriro diseinatzea eta inguruan dauden espazio irekiekin harmonizatzea, ibaiaren ertzetik batik bat. Horrez gain, garrantzitsua da kirol eta aisialdi eremu bat gisa hartzea, pertsona guztientzat, umeak barne hartuz, eta espazioak diseinatzea, natura, ingurumena eta eskaintzen dituzten hainbat jolas-aukera ezagut ditzaten.





3

TENIS ERTZA



Azalera: 3.156 m²

Kudeatzailea: Getxo Kirolak.

Ezaugarriak: Tennis-eremuko perimetroa kiroldegiko iparraldeko gainerako muga da, eta kanpo-ko tenis-pistak inguratzen dituzten bi eremu triangeluarrez osatuta dago. Bi eremuak nahiz eta handiak izan, ez zaie probetxurik ateratzen. Mendebaldeko eremuan Getxoko Tennis Playa klubeko etxola dago, eta inguru hori utzita dago.

Parkeko eremuen diseinu orokorrean pentsatuz gero, garrantzitsua da kontuan hartzea, eremu horiek, aldatzeko ahalmen handia dutela, bere azalerarengatik eta iparraldeko sarbidetik, ibaitik eta Julio Caro Baroja Bigarren Hezkuntzako Institututik hurbil daudelako.

Gaur egun, ibai-ertzetik doan bidea etenda dago eta hesi baten kontra amaitzen da. Etorkizunean funtsezkoa izango da Gobela ibaiaren korridore ekologikoaren jarraitutasuna bermatzea.





4

BELODROMOAREN EKIALDEKO ERTZA




Azalera: 2.741 m²

Kudeatzailea: Getxo Kirolak.

Ezaugarriak: Eremu honek partzialki inguratzen du belodromoa eta kiroldegiko iparraldeko eremuaren ertzaren zati bat da. Salsidualde kalearen ondotik doa, hesi metaliko jarraitu baten beste aldean dagoena.


Eremu garrantzitsu bat da zenbait arrazoiengatik: autobidetik hurbil dagoenez, kiroldegiarekiko soinu-eraginaren murrizketan eragin handia izan dezakeelako. Horrez gain, ibilbide jarraitu bat berma dezake parkaren perimetroan zehar, eta hegoaldeko eremuan, zabaltasun handiagoa duenez, jarduera berriak barne har litzake.





5

GOBELAREN GOI EZKERRALDEKO ERTZA




Azalera: 6.275 m²

Kudeatzailea: Uraren Euskal Agentzia, Getxoko Udala, Getxo Kirolak.

Ezaugarriak: Eremu hau duela gutxi aldatu da, ibaiaren hobekuntza hidraulikoko lanengatik, eta funtsean, Gobela ibaiaren ibilgu osoa barne hartzen du, Julio Caro Baroja Institututik Faturako iparraldea lotzen duen zubiraino. Gaur egun, eremu hori ia ez da erabiltzen, bideen egoera txarren-gatik eta ibaiaren ibilguaren beheko partearekin loturarik ez duelako.


Aukera interesgarria da eremu honetarako, segurtasun hidraulikoko eta ingurumena errespetatzeko eskaerak betetzen dituelako, ezpondatik ibilguaren zatirik behekoeneraino jaisteko loturak sortzea, naturarekin, aisialdiarekin eta kirolarekin zerikusia duten jarduerak egiteko. Jarduera horiek nahitaez aldi baterakoak izan behar dute, Gobelaren uholdeen aldizkako arriskuarengatik, eta mantentze-lanekin, espezie inbaditzaileen tratamenduarekin, sastrakak kentzearekin koordinatu beharko lirateke.





6

PADEL EREMUA ETA GARAGARDOTEGIAREN IPARRALDEKO SARBIDEA



Azalera: 8.329 m²

Kudeatzailea: Uraren Euskal Agentzia, Getxoko Udala, Getxo Kirolak.

Ezaugarriak: Eremu triangeluarrak ia hektarea bateko azalera du. Gobela ibaiaren eta Makaleta Etorbidearen artean dago, garagardotegiaren eta Getxoren futbol-zelaiaren iparraldean. Denboraldi batean erabil ezin den eremua da, Uraren Euskal Agentzia egiten ari den lanengatik. Lan hauek, ibaitik hurbil zeuden hiru padel-pista ireki eraistea ekarri dute, ur-ibilguaren atal hidraulikoa handitzeko. Ibaiaren ibilgua handitzearekin, lekuaren topografia nabarmen aldatu da.


Berdegune berriak sortu dira (eta horiekin aukera berriak), eta ertzarekiko paralelo dagoen bide bat, oraingoz hesi baten kontra amaitzen duena. Etorkizunean Makaleta Etorbide berrian aterako da, Fadurako aparkaleku nagusia Iparbide kaleko eremuarekin lotuz. Funtsezkoa da garagardotegiaren iparraldean kokatuta dagoen sARBIDEKO atea berriro aztertzea, kiroldegira sartzeko ardatz berri eta garrantzitsu bat gisa, eta eremu hori garagardotegi berriarekin integratu, bere inguruan eremu eroso eta irekia sortuko duena.





7

GOBELAREN ERDIKO ERTZAK



Azalera: 3.378 m²

Kudeatzailea: Uraren Euskal Agentzia, Getxoko Udala, Getxo Kirolak.

Ezaugarriak: Gobela ibaiaren tarte honetan eskuinaldea da garrantzitsua, eta aldaketa gehien izan dituen da, ibilguan berriki egindako lanengatik. Eremu hau, aparkalekuaren eta padel-pisten eremuaren artean dagoena, nahikoa handia da zenbait jarduera egiteko, eta aparkalekuarekin zuzenean lotuta dago, Fadurara sartzeko gune nagusietako bat dena.


Etorkizunean esperi da eremu horretatik igarotzen den bidea publikoari irekita egote eta ibaiaren eskuinalde osoan zehar jarraitzea, hezegunetik kiroldegiaren iparraldeko mugaraino. Ezkerraldea tarte horretan oso estua da ibaiaren eta frontoien eraikinaren ezponden artean. Gaur egun, bide bat dago hor. Bide hori hesi baten kontra eteten da hegoaldeko muturrean, baina irekia izateko (parkea berriro diseinatzeko etorkizuneko fase batean) eta ibaiaren ezkerraldeko ertzean zehar ibilbide jarraituarekin lotzeko prestatuta dago.





8

APARKALEKU NAGUSIA



Azalera: 9.730 m²

Kudeatzailea: Uraren Euskal Agentzia, Getxoko Udala, Getxo Kirolak.

Ezaugarriak: Fadurako aparkaleku nagusia bi eremuak (iparraldea eta hegoaldea) eta kiroldegia lotzen eta bereizten dituen elementu nagusia da. Bere diseinua funtsezkoa da Gobela ibaiaren bi ertzetan oinezkoen ibilbideak bermatzeko eta eremu osoa irisgarria izateko. Edukierarekin zerikusia duten hainbat kexa jaso badira ere, zaila da plaza kopurua handitzea, ez dagoelako lekurik. Fadurako aparkaleku faltari irtenbidea bilatu behar zaio, baina ibilgailu pribatuari espazio publiko handiagoa eman gabe.

Asteburuetan aparkalekuko zenbait eremu jaiak aire zabalean ospatzen duten pertsona-taldeek hartzen dituzte. Horrek, aukera berriak ematen ditu eta eztabaida eragiten du.





9

MAKALETA ETORBIDEKO APARKALEKUA



Azalera: 2.419 m²

Kudeatzailea: Getxo Kirolak, Getxoko Udala.

Ezaugarriak: Eremu hau Makaleta Etorbidean zehar dagoen eraikin nagusiko aparkalekua da. Bere kokapena eta forma direla eta, zaila da handitzea, baina garrantzitsua da paisaiaren zenbait alderdi eta errepidearekin duen harremana hobetzea, errei kopurua eta abiadura murrizteko planak, eta, oro har, etorbidea etorkizunean hiri-bulebar bat bihurtzea kontuan hartuz.

Eremu hau erabiltzen duten pertsonak aparkaleku faltarekin eta bizikleten aparkalekuaren segurtasunarekin daude kezkatuta.





10

GOBELAREN BEHEKO ERTZAK



Azalera: 6.584 m²

Kudeatzailea: Uraren Euskal Agentzia, Getxoko Udala, Getxo Kirolak.

Ezaugarriak: Fadurako zubiaren eta kiroldegiairen hegoaldeko muturraren artean dagoen Gobela ibaiaren tartean nabarmen berritu dute URA agentziaren lanen azken fasean. Zubia hobetu da, eta ibaian behera, ibilguaren atala, uholde bat gertatzen bada, edukiera eta segurtasuna handitzeko. Lanen esparruaren barruan, kiroldegiko muga asko doitu dira (eskuinaldean nagusiki), zenbait hesi berrituz eta zenbait zuhaitz berriro landatuz. Horrez gain, bi bide publiko egin dira, eta Bolueko hezegunea Fadurako erdiko aparkalekuarekin lotzen diren ertzekiko paraleloak diren bideak ireki dira. Etorkizunean, bideen trazadurarekin jarraitu beharko litzateke, instalazioaren iparraldeko mugaraino, jarraitzen duten ziurtatzeko.

Ibai-ertzetan bideak gauzatzeak are gehiago murriztu du kanpoko igerilekuetarako dagoen eremua, eta hesia metro batzuk gehiago hurbildu da igerilekura. Hori dela eta, garrantzitsua da Fadurako instalazioen alde horren paisaia-testuinguru berriro aztertzea.





11

HEGOALDEKO ERTZA



Azalera: 3.352 m²

Kudeatzailea: Uraren Euskal Agentzia, Getxoko Udala, Getxo Kirolak.

Ezaugarriak: Lur-triangelu honi ez zaio probetxurik atera, eta kiroldegiaren hegoaldeko muturrean kokatuta dago eremuan azken urteetan zenbait erabilera-aldaketa egin direlako. Bole 3 futbol-zelaia eraiki aurretik, kantxa eraikitzeagatik moztuta geratu zen kirol-zirkuitu baten barruan zegoen. Gero, zirkuituaren alde hori kendu zen, gaur egun den igarotzeko berdegunea bihurtzeko, hainbat zuhaitz landatuz.

Triangelu txiki hori garrantzitsua izan daiteke hezegunea etorkizuneko parkearekin lotzerako orduan.





ILDO ESTRATEGIKOAK - KIROLDEGIKO INSTALAZIOAK

Kluben etxolen eta beste egitura txiki batzuen kudeaketa eta banaketa berriro aztertzea Fadurako barrutiaren barruan, etorkizuneko parkearen barruan sar daitezzen.

Harmailen irisgarritasuna eta atletismo-zelaiaren aldagelen baldintzak hobetzea.

Abonatuentzat diren edo erreserba eginez bakarrik sar daitezkeen instalazioetarako (tenis, padel, areto-futbola eta abar) sarbide-sistemari buruz gogoeta egitea.

Tenis-pista estalien baldintzak hobetzea eta kanpoko pistak berrantolatzea, erabiltzaileen eskaerei erantzuteko.

Padel-pisten baldintzak hobetzea, pista gehiago edota pista estaliak izateko beharrari buruz gogoeta eginez.

Saskibaloi, areto-futbol eta padel pisten eremua berriro diseinatzea, ibaian egindako lanen baldintza berriak kontuan hartuz.

Ping-pongerako eremua berriro aztertzea, eremuari probetxu handiagoa ateratzeko.

Kalitatezkoak eta beste batzuei itxaroten dieten erabiltzaileentzat erakargarriak diren itxarote-eremuen beharrari buruzko gogoeta egitea.

Frontoien eraikinaren barruko eremuak berrantolatzea, jardueren arteko bateragarritasun-arazoak konpontzeko eta eremuei ahalik eta probetxurik handiena ateratzeko.

Getxo taldearen zelaiaren eremua berriro aztertzea, edukiera handiagoa duen eta gaur egungo estandarretarako egokiagoa den estadio bat izateko beharra kontuan hartuz.

Getxo taldearen zelaia paisaian integratzea bere inguruan, batik bat ibairantz.

Garagardotegiaren eremua eta kiroldegia barruan eta hirian izan dezakeen eginkizuna berriro aztertzea.

Teknika Hobekuntzarako Zentroaren espazio libreak Fadurako gainerako kiroldegiekin duten integrazioa hobetzea.

Aurreko Txikiguneak igerilekuen inguruan duen eginkizuna berriro aztertzea.

Bolueko futbol-zelaiaren irisgarritasuna bideratzea, eta Fadurako barneko aldearekin eta ibaian zeharreko bide berriekin duen erlazioa hobetzea.

Kanpoko igerilekuen inguruan irekita dagoen eremua hobetzea, paisaiaren diseinuari, erabilera-malgutasunari, konfort klimatikoari, ekipamenduei, altzariei eta bestelakoei dagokienez.

ILDO ESTRATEGIKOAK - KIROLDEGIKO INSTALAZIOAK

Kiroldegiko eremuan bideen baldintzak hobetzea, irisgarritasuna eta kanpoko eremuekiko lotura.

Koherentea den paisaia-diseinu bat garatzea parke osoan zehar, kalitatezko natura-eremuak aurreikusten dituen, pertsona guztientzako jarduerekin, genero, adin edo jatorri desberdintasunik egin gabe.

Kiroldegian jolasteko edo kirol librea egiteko dauden instalazioak hobetzea.

Parkean zehar zenbait ibilbide jarraitu sortzea, entrenamendurako edo aisialdirako.

Parke berriak duen eginkizuna berriro aztertzea, hiriarekin duen erlazioari dagokionez, batik bat ertzetan, irekitzea, irisgarritasuna eta paisaiarekin duen jarraitutasun ekologikoa kontuan hartuz.

Ibaiaren ibilguaz baliatzea, atal berriarekin, kiroldegiaren paisaia-eta erabilera-aukerak gehiago hedatzeko.

Parke berrirako sarbide-sistema berrantolatzea, gainerako hiriarekin integratutako hiri-egitura berriak gisa.

Instalazioen inguruko gutxi erabilitako eremuak aztertzea, ingurumenarekin eta aire zabaleko jarduerarekin bateragarriak diren erabilera berriak bilatuz.

Area kiroldegiko hegoaldeko muturrean integratzea Bolueko hezegunearekin eta aldameneko oinezkoen bideekin, Gobela ibaiaren sistemara sartzeko beste gunek bat sortzeko.